

PRELIMINARES DEL HÉROE

*Un batallón de estímulos  
desertando del frente creativo de vanguardia  
La batalla de Las Navas en pleno desenlace  
Palabras al asedio  
fluyendo de la herida angosta de la premonición  
El poema agonizando en el poema  
Sancho El Fuerte avanzando sin piedad hacia la métrica  
Mi Reino por un caballo que no vista de blanco  
Partí buscando gloria y regreso entre Cadenas  
El poeta se resiste y desenvaina la idea  
asestando en el aire varetazos al infiel  
Visceras por todas partes poniéndolo todo perdido  
de épica y desequilibrio estrófico  
A pie de página las notas del desarmado  
justificando la sangre vertida  
Radiografía de un héroe que todavía agoniza  
arrodillado al papel*

*Suenan tambores de madrugada  
Mí caricatura a galope  
abandona el poema  
en el último verso  
Heptasílabo con bandera de rendición  
y armadura sangrante*



**Astiz,  
Ñigo**  
(Iruñea, 1985)

“**I**nori ez zaio sekula poema bat gertatu”. Poesia nagusiki ariketa formal bat dela adierazi nahi izan zion esaldi eder horrekin Jaime Gil de Biedma poetak galdera egin zion kazetariari, eta, nahiz eta nik neuk ere ideia horrekin guttiz bat egin,

esango nuke, hain justu ere, esaldi horren kontra idatzi izan dudala nire poesiaren zati bat. Gorputza izan zen Susa argialetxeak kaleratu zidan *Baita hondakinak ere* poema liburuaren ardatz nagusietariko bat: poema guztiak gorputzetik pasatuta idazten saiatu nintzen orduan. Digerituta bezala. Inpresioa dut eskuez harago dauden elementuei uko eginez idatzi dudala beti. Ez naiz abstrakzioez fio, eta, adibide batzuk jartzearen, maitasunaren, prekaritatearen edota eternitatearen ideiak ere gorputz konkretuetan eragina duten neurrian soilik interesatzen zaizkit. Herren eginarazten dutenean-edo. Baina esan bezala, poemak gertatu daitezkeela frogatzea izan zen nire asmoetariko bat. Beti eman dit inbidia zer nolako askatasunez eta ziurtasunez jotzen duten artista plastikoek beren diziplinaren mugetarantz, eta zer konplexu gutxi duten esperimenez. Eta inbidia horrek bultzatuta saiatu nintzen ni neu ere esperimenduak izeneko poema serie batekin poesia performancearekin gurutzatzen.

Alberto Caeiroren bertsolerroek eman zidaten pista. “Lur guztia hozkatu eta / eta ahosabaian sentitu ahalko banu, / zoriontsuagoa nintzateke une batez...”. Shock moduko bat sentitu nuela gogoratzen dut. Ez nuen ulertzen nola egin ziezaiokeen uko pertsona batek zoriontsuago izateko bideari, batez ere, bide

44

hori hain eskura izanik. Zergatik ez zion hozkarik egiten lurrari, baldin eta lurra hozkatzeak zoriontsuago egingo zuela igartzen bazuen? Pentsatu nuen Pessoa hipotesian utzitakoa praktikara eramatea izan zitekeela nire ekarpena, eta hala sortu nuen nire lehen esperimendua: Esperimendu geofagoa l(ab)orategian. Etxeko baratzerara joan, lurra jan, eta ekintza xume hark poema bat eragiten ote zuen aztertuta. Jostari, noski. Eta nire zorirako poema bat gertatu zitzaidan. Eta lehen esperimendu haren, gisa bereko beste hainbat etorri ziren. Ez Gil de Biedmak esandakoaren guttiz alde, poema haiek ere, ezinbestean, eraikuntza formal zaindu bat zirelako, baina bai Gil de Biedmak esandakoaren pixka bat kontra, ukaezina baitzen poema haiek gertatu egin zitzaizkidalda.

Vito Acconci poesiarekin nekatuta zegoelako hasi zen arte munduan, eta denbora batera, arte erakusketekin nazka-nazka eginda zegoelako hasi zen bere gorputza artelan modura erabiltzen performanceetan. Baina arte forma hori ere egonkortzen joan ahala aspergarri egiten hasi, eta 75 urteren bueltan arkitekturara jauzi egin zela egin zidan aitortpena *Berria* egunkarirako egin nion elkarrizketan: “Gorputza akitu nuen”. Ni ez naiz puntu horretara heldu, oraindik ere miragarria iruditzen baitzait gorputzen misterioa, baina egia da azkenaldian bestelako kontu batzuek harrapatu nautela. Liluratzen nau, esaterako, zenbat komunikazio kodek gurutzatzen gaituzten. Eta dantza garai-kidean mugarri izan zen galdera bat da orain inbidia pizten didana: Zergatik murriztu dantza mugimenduak giza gorputzaren mugimenduetara?

ANALFABETOA

*Axolagabe doaz hodeien itzalak  
lurrean zeruaren alfabetoa zabaltzen  
bere jende koreografian dabil hiria  
eta kanta doinu bat jaurti dit auto batek  
erabat identifikatzerik lortu ez dudana.  
Gogorarazi dit nola gurutzatzen nauten  
uhin ikusezinek beren mezu ederrez.*

*Guztia mintzo zait hemen  
ulertzen ez dudan zerbaiti buruz.*

*Behin hieroglifiko bat laztandu nuen,  
harri beroaren gainean esku biluzia,  
eta poztasun berarekin igartzen dut orain,  
igarri baino ez, guztiaren atzean badela  
hau dena gidatzen duen kode bat  
ahoskatzea debekatu zaidana.*



**Azkona Garzia,  
Josetxo**

*(Iruñea / Pamplona, 1953)*

45

Quizás, no lo sé, escribo poesía con el afán incansable de visitar aquellos territorios situados más allá de las esquinas del discurso lógico-formal de la razón prosaica. En la poesía se avienen, entre otros extremos, Eros y Tánatos, dualidades en constante pugna y perpetuo movimiento. De ese extraño trato surge a veces algo bello y misterioso, un atisbo que nos ayuda a orientarnos en ese complejo, asombroso, cruel y absurdo deambular por la vida.

Así, en mi recorrido no rectilíneo –en la torsión, curvaturas y altibajos del camino está la belleza– he ido colocando ciertos hitos poéticos que, a modo de *cairns*, señalizan mi paso como poeta y narrador. A saber: *Argiaren goral-dian zabuka* (Premio Poesía Ayuntamiento Pamplona, 1993), *Artius* (Premio Poesía Felipe Arrese, Euskaltzaindia-Academia de la Lengua Vasca, 1996), *Koilara bete hitz* (Alberdania, poesía, 2001), *Patata soro bat* (Alberdania, mi-